

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Jendaurrean jartzea ur hornidura, zabor bilketa eta estolderiako erroldak, 2021eko laugarren hiruhilekokoak

Ur hornidura, estolderia eta zabor bilketako zerbitzuak jasotzeagatik 2021eko laugarren hiruhilekoko tasak ordaindu behar dituztenen udal erroldak egin ondoren, alkatearen 2021eko abenduaren 29ko dekretu bidez onetsi dira.

Erroldak jendaurrean egongo dira hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek erroldak aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko. Interesdunek espedientea udal bulegoetan (Zudu-biarte kalea, 1) aztertu ahal izango dute, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri ondorengo egunetik aurrera.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea hilabetekoa izango da, 2022ko otsailaren 10etik martxoaren 10era arte.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien erreklarguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Banketxe bidez bideratutako ordainketak direla-eta zergapekoek ez dute inongo izapiderik egin beharko. Zergapeko horiei 2022ko otsailaren 22an kobratuko zaie.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Nafarroako Rural Kutxan sar dezaten.

Okondo, 2021eko abenduaren 29a

Alkatea

JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO